

NAFARROAKO GOBERNUA
GARAPEN EKONOMIKOA
ESKUBIDE SOZIALAK
OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA
LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA
HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK
HEZKUNTZA
OSASUNA
KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

216.000 euro baino gehiago ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizazioko proiektuetarako, ingurumen-arloko boluntariotzako proiektuetarako, lurraldearen zaintzako proiektuetarako eta herritar zientziako proiektuetarako

Gaur arratsaldean, informazio-bilera bat egingo da Iruñean, deialdi honen oinarriak eta iazkoarekiko berrikuntzak azaltzeko

Astelehena, 2019.eko otsailak 18

Ingurumenak [laguntzen](#) deialdia egin du honako proiektu hauetarako: ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa, ingurumen-arloko boluntariotza, lurraldearen zaintza eta herritar zientzia. Guztira 216.821 euroko laguntza gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeentzat izango da. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 20an amaitzen da.

Horrela ageri da Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusia den Eva Garcia Balaguerrek emandako [ebazpenean](#); ebazpena gaurko (astelehena, otsailak 18) Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu da.

Hori dela-eta, gaur arratsaldean informazio-bilera bat egingo da, deialdi honen oinarriak ez ezik, iazkoarekiko berrikuntzak ere azaltzearren. Bilera 18:00etan izango da Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuaren ekitaldien aretoan (González Tablas kalea, 9. Iruña).

Nafarroako Gobernuak ingurumen-hezkuntzaren tratamendua zeharka indartu nahi du maila guztietan, ingurumen-arloko boluntariotza eta lurraldearen zaintzako eta herritar zientziako ekimenak bultzatzeaz gain. Helburu nagusia da herritarrek ingurumenaren gainean sentsibilizazio eta ezagutza handiagoa izatea edota ingurumen-arazoak konpontzen banaka nahiz taldean parte hartzeko balioak nahiz trebetasunak hartzea.

Gastua honela banatuko da proiektu-motaren arabera: 110.021 euro ingurumen-hezkuntzarako, 42.000 euro ingurumen-arloko boluntariotzarako, 32.400 euro lurraldearen zaintzarako eta beste 32.400 euro herritar zientziarako.

Azkenik, adierazi laugarren aldiz egin dela laguntza hauen deialdia. 2016an deitu ziren lehendabizi, eta geroztik aurrekontua pixkanaka igotzen joan da. 2016. urtean, soilik ingurumen-hezkuntzarako eman zen laguntza, 30.000 eurokoa; 2017an, bi modalitate egon ziren, eta guztira 40.819 euro banatu ziren: ingurumen-hezkuntza (30.000 euro) eta boluntariotza (10.819 euro); eta 2018an indarrean diren lau modalitaterako egin zen

deialdia, 173.342 euroko aurrekontuarekin: ingurumen-hezkuntza (75.000 euro); boluntariotza (28.342 euro); lurraldearen kontserbazioa (35.000 euro) eta herritar zientzia (35.000 euro).